



iraila.abendua  
SEPTIEMBRE.DICIEMBRE/2012

# musikale

KALEKO MUSIKARIEN NAZIOARTEKO XII TOPAKETA / XII ENCUENTRO INTERNACIONAL DE MÚSICOS CALLEJEROS

**irailak 14-15-16 septiembre**  
**2012**



BAET KLEZMER BAND (Andalucía)

LOS GRANUJAS (Cantabria)

ALWAYS DRINKING MARCHING BAND (Cataluña)

BANDARRA STREET ORKESTRA (Cataluña)

BROKEN BROTHERS BAND (Euskadi)

GADJO (Cataluña/Francia)

TUMBALA (Portugal)

SOUTH STYLE BRASS (Portugal)

PINK PUFFERS BRASS BAND (Italia)

---

Y ADEMÁS, EN LEIOA:

---

LEIOAKO MUSIKA BANDA (Euskadi)

TRAVELLIN' BROTHERS (Euskadi)





dantza  
DANZA-CIRCO

IRAILAK 29 SEPTIEMBRE

PERDIENDO EL TIEMPO

Cía. Mar Gómez  
(MADRID)

Zer egingo zenuke bizitzeko ordubate bakarrik duzula esango balizute? Denbora arin igarotzen den unibertso batean, pertsonaia bi gelditu egin dira, dituzten oroitzapen desordenatuak erreparatzeko. Erloju erraldoi baten bizilagunak izaki, erlojuak aktibatzen duen engranajea nola hausten den ikusten dute: segundoz segundo, denbora agortzen doa. Baina burutu ez zuten hura egin beharrean, gelditzen zaie denbora apurra galtzea erabakitzen dute... dibertitzen. Oroitzapen nahasiak, memoria atxikiak eta amets ebakiak dituzten pertsonaiak, euren bizitzako azken uneetan horiek guztiak espazio anarkiko bihurtzen dituztenak. Bertatik, modu ikaragaitzean, denborak nola egiten duen ihes ikusten dute, eta bere burua aske ikusten duenaren garraztasunarekin eta samurtasunarekin antzematen dute.

19:00 h // 10 € // Auditorium

ZUZENDARITZA ARTISTIKOA DIRECCIÓN ARTÍSTICA

Mar Gómez

SORRERA CREACIÓN

Mar Gómez, Ignasi Gil

INTERPRETEAK INTÉRPRETES

Mar Gómez, Xavier Martínez

+ INFO

[www.danzamargomez.com](http://www.danzamargomez.com)



GOMENDATUA  
RECOMENDADO



¿Qué harías si te dijeren que sólo te queda una hora de vida? En un universo donde el tiempo corre veloz, dos personajes se detienen para contemplar sus desordenados recuerdos. Habitantes de un inmenso reloj, ven cómo se rompe el engranaje que lo activa: segundo a segundo, el tiempo se acaba. Pero en lugar de realizar aquello que nunca consumaron, deciden perder el poco tiempo que les queda... divirtiéndose. Personajes con recuerdos confusos, memorias retenidas y sueños amputados que en sus últimos momentos de vida se convierten en un espacio anárquico desde el que contemplar, de forma imperturbable, cómo se escapa el tiempo y percibirlo con la mordacidad y la ternura de quien se sabe libre.



antzerkia  
TEATRO

URRIAK 5 OCTUBRE

A V A N T I  
Traspasos K  
(EUSKADI)

“Avanti” lana Billy Wilderrek 1972. urtean zinemarako modu bikainean egokitutako Samuel A. Taylorren antzerki-lanaren gainean Jordi Galceránek egindako bertsioa da.

Jaime ezkondua eta zorionsu bizi den negozio-gizona da. Italiara joan behar du, aita auto istripu batean zendu baita. Modu horretan jakin du aitak sekretupeko amorante bat zuela. Laura, aitaren amorantearen alaba ezagutzean, istorioa konplikatu egingo da. Euren gurasoen gorpuak desagertu egingo dira modu misteriotsuan, eta bikotea misterio harrigarri batean murgilduko da... eta, nola ez, amodioaren arloan ere zailtasun batzuk biziko dituzte.

20:30 h // 12 € // Auditorium

**AUTOREA AUTOR**

Samuel A. Taylor

**ZUZENDARITZA DIRECCIÓN**

Mikel Gómez de Segura

**MOLDAKETA ADAPTACIÓN**

Jordi Galcerán

**INTERPRETEAK INTÉRPRETES**

Alfonso Torregrosa, Maiken beitia, Tomás Fernández, Miguel Olmeda, Javier Alkorta “Txortas”

**+ INFO**

[www.traspasoskultur.com](http://www.traspasoskultur.com)



GOMENDATUA  
RECOMENDADO



“Avanti” es una versión de Jordi Galcerán de la obra teatral de Samuel A. Taylor que Billy Wilder adaptó magistralmente para el cine en 1972.

Jaime es un hombre de negocios felizmente casado que se ve obligado a viajar a Italia por el fallecimiento de su padre en un accidente de tráfico. De este modo se entera de que tenía una amante secreta. Al conocer a Laura, la hija de la amante de su padre, la trama se complica. Los cadáveres de sus progenitores desaparecen misteriosamente y la pareja se ve envuelta en un desconcertante misterio... y también, cómo no, experimenta algunas complicaciones amorosas.





URRIAK 7 OCTUBRE

CONSONANT  
Maduixa Teatre  
(VALENCIA)

Consonant Paularen liburu gogokoena da. Irakurri egin nahi du, baina bere ahizpa Ainak zaildu egingo dio asmo hori, interesatzen zaion gauza bakarra jolastea baita. Liburua irakurri ahala eta irudimenaren laguntzarekin, ahizpek mundu fantastiko batera bidaiatuko dute, non letrek bizia hartu eta joko harriarri baten atek zabaltzeko transformatzen baitiren.

Dantzak, antzerkiak, itzalguneek, arte plastikoek eta teknologia berriek Paula eta Ainaren irudimenaz elikatzen den poesia bisualaren mundura eramango gaituzte.

Joan Brossa poetaren alegiazko unibertsoa da ikuskizun honen erreferentea, eta letrak objektu, magia eta hitz-joko bihurtzean datza benetako funtsa.

18:00 h // 5 € // Auditorium

ZUZENDARITZA ETA EGILEA  
DIRECCIÓN Y AUTORÍA  
Juan Pablo Mendiola

ZUZENDARITZA KOREOGRAFIKOA  
DIRECCIÓN COREOGRÁFICA  
Mamen García

INTERPRETEAK INTÉRPRETES  
Aina Gimeno, Paula García Sabio

+ INFO

[www.maduixacreacions.com](http://www.maduixacreacions.com)



GOMENDATUA  
RECOMENDADO



Consonant es el libro favorito de Paula. Ella se dispone a leerlo, pero su hermana Aina se lo va a poner realmente difícil porque lo único que le interesa es jugar. A través de la lectura del libro y con ayuda de la imaginación, las hermanas viajan a un mundo fantástico en el que las letras toman vida y se transforman para abrir las puertas de un juego sorprendente.

Un espectáculo en el que danza, teatro, sombras, artes plásticas y nuevas tecnologías nos transportan a un mundo de poesía visual que se nutre de la imaginación de Paula y Aina.

El universo imaginario del poeta Joan Brossa es el referente de este espectáculo donde la transformación de las letras en objetos, la magia y los juegos de palabras son auténticos protagonistas.



dantza

CONFERENCIA BAILADA

© Anna Padrós

URRIAK 18 OCTUBRE

TONI JODAR EXPLICA LA DANZA MODERNA Y CONTEMPORÁNEA

BDDansa  
(CATALUÑA)

Toni Jodarrek bere gorputzaren bitartez erakusten du denborearen iragaitea, eta bere esperientzia eta umorea erabiltzen ditu, izaera pedagogikoa duen performance batean. Performancea, berez, irakurraldi sortzaile eta atsegina bihurtzen da, eta, bertan, klasikotik garaikiderainoko bilakaera agertzen du, gorputzak mugimenduan adierazteko erabiltzen dituen genero eta formei erreferentzia eginez.

XX. mendean zehar dantza modernoa eta garaikidea sortu eta sustatu zituzten genero eta artista nagusien gaineko hitzaldi dantzatua.

12:00, 19:00 h // 5 € // Auditorium

**AUTOREAK AUTORES**

Toni Jodar, Beatriu Daniel

**ZUZENDARITZA DIRECCIÓN**

Toni Jodar

**INTERPRETEA INTÉRPRETE**

Toni Jodar



GOMENDATUA  
RECOMENDADO



Toni Jodar ilustra con su cuerpo el paso del tiempo de la danza y utiliza su experiencia y humor en una performance de carácter pedagógico que se convierte en sí en una lectura creativa y amena, en la que muestra la evolución del clásico al contemporáneo, haciendo referencia a los diversos géneros y formas que utiliza el cuerpo para expresarse en el movimiento.

Una conferencia bailada sobre los principales géneros y artistas que crearon y promovieron la danza moderna y contemporánea durante el siglo XX.



# Kultur Leioaren laguna izan

HAZTE AMIGO/A  
DE KULTUR LEIOA

**URTERIK URTE ABANTAILA GEHIAGO  
ESKAITZEN DIZKIZUGU.**

**%5eko deskontu** gehigarria lortu,  
sarrerak **irailaren 21a (ostirala) baino  
lehen erosiz.**

**AÑO TRAS AÑO SEGUIMOS  
OFRECIÉNDOTE MÁS VENTAJAS.**

Benefíciate de un **5% de descuento**  
adicional adquiriendo tus entradas  
**antes del viernes 21 de septiembre.**



**musika**  
...CON ALMA

**URRIAK 19 OCTUBRE**

**LULA PENA**  
**(PORTUGAL)**

Tom Waits eta Leonard Cohenen arteko ahotsarekin, baina emakumea izanik, Lula Pena portugesez abesten duen abeslari garrantzitsuenetakoa da gaur egun, eta Caetano Veloso eta Rodrigo Leão mirezle ditu, besteak beste. Portugalen jaio baina munduan barna trebatua, artista sailkaezin hau kultuzko artista bihurtu da, bere ibilbide partikularrari eta bere proposamen artistikoaren originaltasunari esker, non bere ahotsak, testuak eta presentziak protagonismo osoa duten.

Alabaina, Lula Penak ez du fadoa abesten soilik; zuzeneko zoragarri eta eszenaratze simple eta soil baina zirrargarri batekin, berea artista bakanen folk unibertsalaren berezko eta hurbileko soinu-transgresioa da. Ahots eta gitarraz lagunduriko kontzertua, hitz eta soinuen kontzertua, hitz egiten digun munduaren barruko distira.

**21:00 h // 20 € // Auditorium**

**DENBOLDARIKO BONOA**  
**BONO TEMPORADA**

60 € (ezin da beste deskontu batzuetara gehitu / no acumulable a otros descuentos)

**KULTUR LEIOAREN LAGUNENTZAKO BONOA**  
**BONO PARA AMIGOS/AS KULTUR LEIOA**  
50 €

**MUSIKARIAK MÚSICOS**

Lula Pena (gitarra eta ahotsa)

**+ INFO**

[www.myspace.com/lulapena](http://www.myspace.com/lulapena)

GOMENDATUAK  
RECOMENDADOS



Con una voz entre las de Tom Waits y Leonard Cohen, pero en femenino, admirada entre otros por Caetano Veloso y Rodrigo Leão, Lula Pena es una de las cantantes en lengua portuguesa más relevantes de la actualidad. Nacida en Portugal pero formada en el mundo, esta artista inclasificable se ha convertido en una artista de culto, gracias a su particular trayectoria y a la originalidad de su propuesta artística, en la que la voz, el texto y su presencia única centran todo el protagonismo.

Pero Lula Pena no solo canta fado; con un directo maravilloso y una puesta en escena sencilla y sobria pero sobrecogedora, la suya es una transgresión sonora más propia y cercana a ese folk universal de los artistas únicos. Un concierto de voz y guitarra, palabras y sonidos, una reverberación íntima de un mundo que nos habla.

**G A U P O R T U G A L D A R R A**





#### FITXA ARTISTIKOA FICHA ARTÍSTICA

António Zambujo (ahotsa eta gitarra), Bernardo Couto (gitarra portuguesa), Jon Luz (cavaquinho), Zé Conde (klarinetea), Ricardo Cruz (kontrabaxua)

#### + INFO

[www.antoniozambujo.com](http://www.antoniozambujo.com)

URRIAK 19 OCTUBRE

## ANTÓNIO ZAMBUJO QUINTET (PORTUGAL)

António Zambujoren ahotsak bere jaioterra gogorarazten du, Alentejo, lau musikari bikainen kantuz lagundurik.

37 urteko portugaldar honek Caetano Veloso miresten du, eta, hain zuzen ere, haren babesa dauka. Diotenez, fadoak gizonen artean duen ahotsik berriena da, nahiz eta berak bere burua musikaritzat hartzea nahi duen soilik.

Bere kontzertua fadoari eta kantu alentejarrari buruzko ikuspegi partikularra da, eta, horren bitartez, bere eragin musikal ugariak ezagutarazten dizkigu.

Azken batean, fadoa garaikidea ere izan daiteke.

António Zambujo, su voz, recuerda su tierra natal, el Alentejo, con un canto acompañado por cuatro excelentes músicos.

Este portugués de 37 años cuenta con valedores como su admirado Caetano Veloso y se le señala como la nueva voz masculina del fado, aunque a él le gustaría que le consideraran simplemente un músico.

Su concierto es una particular visión de fado y canto alentejano con la que nos revela sus múltiples influencias musicales.

Después de todo, el fado también puede ser contemporáneo.



Gau tematikoak,  
tartetxo gastronomikoekin  
Noches temáticas con intermedios  
gastronómicos

N O C H E P O R T U G U E S A



**dantza**  
CONTEMPORÁNEA

**URRIAK 21 OCTUBRE**

**A R A**

**OtraDanza - Asun Noales**  
**(VALENCIA)**

Ara, egoera errepikaezinez beteriko mundu delikatu eta lili-ragarri batera garamatzen momentua, une bakanari eta denboraren iragaitearen iraungikortasunari zentzia emanez.

Ara BACKekin hasitako trilogiaren bigarren zatia da.

Bidaia berri honek gorputza, espazioa eta joko koreografikoak gainditzen ditu, ikuslearen zentzumenekin, emozioarekin, sorpresarekin eta sentimenduekin konektatzeko, azalaren mugak baino harago

**20:00 h // 10 € // Auditorium**

**ZUZENDARITZA ETA KOREOGRAFIA**  
**DIRECCIÓN Y COREOGRAFÍA**

Asun Noales

**LAGUNTZAILEA ASISTENTE**

Kike Guerrero

**INTERPRETEAK INTÉRPRETES**

Fredo Belda, Carmela García, Kike Guerrero, Saray Huertas, Conchín López, Sebastián Rowinsky

**MUSIKA MÚSICA**

Ludovico Einaudi, Kronos Quartet, Zoé Keating, Pansonic

**ARGIZTAPENA ILUMINACIÓN**

Juanjo Llorens

**+ INFO**

[www.otradanza.es](http://www.otradanza.es)



Ara, momento que nos arrastra a un delicado y cautivador mundo de circunstancias irrepetibles, dando sentido al instante, único y a lo efímero del paso del tiempo.

Ara es la segunda parte de una trilogía que se inició con BACK.

Este nuevo viaje traspasa el cuerpo, el espacio y los juegos coreográficos para conectar con los sentidos del espectador, la emoción, la sorpresa y el sentimiento más allá de los límites de la piel.

GOMENDATUA  
RECOMENDADO





antzerkia  
TEATRO

© Ainhoa Resano

## AZAROAK 8 NOVIEMBRE

### PUBLIKOARI GORROTO Artedrama (EUSKADI)

Aktore bat, bi ikusle, agertoki bat. Besterik ez du behar antzerkiak: hortik aurrera hasten den jokoan, dena da posible.

Teatroari buruzko hausnarketa jostalari baten moduan hasten da obra hau, publikoarekiko keinuz eta umorez; pixkanaka, ordea, arimaren barrunte ilunenak joango dira agertzen: krudelkeria, bortxa, botere-harremanak... giza izatearen amildegi ertzeroa iristeraino.

Euskal antzerki garaikidea poltsiko zulatuekin dabil, eta publikoa gose. Horrek ezin egona pizten du eta Artedramak Xabier Mendigurenek 1985an idatzitako obra taularatzea erabaki du, testu honen haragia gordin zerbitzeko asmoz. On dagizuela!

20:30 h // 10 € // Auditorium

#### EGILEA AUTOR

Xabier Mendiguren

#### ZUZENDARITZA DIRECCIÓN

Manex Fuchs

#### INTERPRETEAK INTÉRPRETES

Ander Lipus, Ainara Gurrutxaga, Urko Redondo



Un actor, dos espectadores, un escenario. El teatro no necesita nada más: en el juego que comienza a partir de ahí, todo es posible.

Esta obra comienza como una reflexión divertida en torno al teatro, con gestos hacia el público y con humor; sin embargo, poco a poco irán apareciendo los más oscuros recovecos del alma: la crudeza, la violencia, las relaciones de poder... hasta el punto de llegar al extremo del precipicio de la existencia humana.

El teatro contemporáneo vasco tiene los bolsillos agujereados, y el público está hambriento. Ello crea inquietud, y Artedrama ha decidido representar la obra escrita en 1985 por Xabier Mendiguren, a fin de servir la carne de este texto bien cruda. ¡Que aproveche!



**musika**  
...CON ALMA

**AZAROAK 9 NOVIEMBRE**

**KETSURAT**  
**(FINLANDIA)**

Emakumezkoen sei ahotsek erritmoz eta kolorez jositako ko-  
reografia batean ehundutako istorioak abesten dituzte.

Euren abestiak ez dira musika bakarrik; batzuetan, ipuinak  
dira, eta, beste batzuetan, berriz, eguneroko gaietako buruzko be-  
netako istorioak.

**21:00 h // 20 € // Auditorium**

**DENBOLDARIKO BONOA**  
**BONO TEMPORADA**

60 € (ezin da beste deskontu batzuetara gehitu /  
no acumulable a otros descuentos)

**KULTUR LEIOAREN LAGUNENTZAKO BONOA**  
**BONO PARA AMIGOS/AS KULTUR LEIOA**

50 €

**ZUZENDARITZA DIRECCIÓN**

Salla Peltola

**INTERPRETEAK INTÉPRETES**

Annariitta Virta, Kaarina Valovirta-Lahti, Karoliina Kanteli-  
nen, Nora Vaura, Salla Peltola, Tiina Savola

**+ INFO**

[www.ketsurat.fi](http://www.ketsurat.fi)

Seis voces femeninas cantando historias tejidas en una coreo-  
grafía de ritmo y colores.

Sus canciones no son sólo música; para ellas son unas veces  
cuentos, otras, auténticas historias sobre temas cotidianos.

**GAU ESKANDINAVIARRA**



## AZAROAK 9 NOVIEMBRE

### KARL SEGLEM (NORUEGA)

Instrumentista, poeta eta musikagilea, Karl Seglem Norvegiako musikari garaikide interesgarrienetakoa da; hain zuzen ere, herrialde hori oparoa da tradizioa adierazpen garaikideagoekin, World musikarekin eta jazz inprobisatuarekin uztartzen dituzten musikarietan.

Berritzailea eta ameslaria, saxofoi-jotzaile bikaina, indarra eman die Norvegiako folkari nahiz jazzari, bere erreperitorio zabalari soinu berriak eta instrumentu tradizionalak (adibidez, adarra) gehituz.


Bakarkako 14 album eta zenbait talderekin elkarlanean grabatutako 13 album ditu, eta, era berean, 2010eko jazz interpretatzaile onenaren The Buddy Award saria ere jaso du. Bere zuzeneko eklektikoak liluratu egiten du.

### MUSIKARIAK MÚSICOS

Karl Seglem (ahotsa, saxo tenorra, eta ahuntzen eta antilopeen adarrak), Håkon Høgemo (hardingfelea), Lars Jakob Rudjord (teklatuak), Stefan Bergman (baxua), Kåre Opheim (perkusioa)

### + INFO

[www.karlseglem.no](http://www.karlseglem.no)



Gau tematikoak,  
tartetxo gastronomikoekin  
Noches temáticas con intermedios  
gastronómicos

Multiinstrumentista, poeta y compositor, Karl Seglem es uno de los músicos contemporáneos más interesantes de Noruega, tierra fecunda en figuras que mezclan la tradición con las expresiones más contemporáneas, la World music y el jazz improvisado.

Innovador y visionario, excelente saxofonista, ha insuflado fuerza tanto al folk como al jazz noruegos, incorporando a su amplio repertorio nuevos sonidos e instrumentos tradicionales como el cuerno.

Con una trayectoria de 14 álbumes en solitario, 13 en colaboración con distintas agrupaciones y el premio The Buddy Award al mejor intérprete de jazz 2010, su directo ecléctico cautiva.

NOCHE ESCANDINAVA





musika  
BLUES

**AZAROAK 16 NOVIEMBRE**

**LOS GATOS BIZCOS  
(MADRID)**

Musika musika da, eta hori da Gatos Bizcos taldeak egiten duena: mota guztietako eragina duen musika: blues, rock, swing, soul, boogie... Musikari gazteak baina eskarmentu handikoak dira, izan ere, Bog Stroger, Jimmy Burns, Gene Taylor, Lou Marini, Depedro edo Josele Santigorekin jo izan dute. Baina talde honi forma ematen lagundu ziona Eddie C. Campbell izan zen, bluesaren legendetako bat. Izan ere, talde hau Campbellekin batera aritu izan zen, azken horrek 2010ean egindako biran.

Taldearen lehen diskoa, "I can't believe my eyes", lehenengo eran grabatutako lana da, benetako soinuarekin, soinu epel eta akustikoa, egurraren usainarekin. Bluesa oinarri gisa hartuta, baina musika beltzaren hainbat estilo bereganatuz. Nahasketa erakarria, melodia kutsakorren eta erritmo beltzen artean. Hori guztiori, naturaltasun eta dotoretasun harrigarriarekin. Talde hau ikustea beste garai batera eramaten zaituen esperientzia bizitzea da. Estilo amerikar hutsean bizitako esperientzia.

**22:00 h // 10 € // Ambigú**

#### **MUSIKARIAK MÚSICOS**

Quique Gómez (ahotsa, harmonika, gitarra), Pablo Sampa (gitarra), Héctor Rojo (kontrabaxua), Miguel Ángel Benito (batera)

#### **+ INFO**

[www.myspace.com/losgatosbizcos](http://www.myspace.com/losgatosbizcos)

**BluesJazz** LEIOA **zirkuitoa**

La música es música y esto es lo que hacen los Gatos Bizcos: música con influencias de todo tipo: blues, rock, swing, soul, boogie... Músicos jóvenes pero experimentados que han tocado con Bob Stroger, Jimmy Burns, Gene Taylor, Lou Marini, Depedro o Josele Santiago. Pero fue una leyenda del blues, Mr. Eddie C. Campbell, a quien acompañaron en su tour 2010, quien terminó de moldear este grupo.

Su primer disco, "I can't believe my eyes", es un trabajo grabado a la vieja usanza, de sonido genuino, cálido y acústico, con olor a madera. Con el blues como base pero abarcando numerosos estilos de la música negra. Una mezcla atractiva entre melodías contagiosas y ritmos negros. Todo ello con una naturalidad y elegancia que asombran. Verlos es una experiencia que te transporta a otra época. Una experiencia al más puro estilo americano.



antzerkia  
TEATRO

AZAROAK 17 NOVIEMBRE

P A C A M A  
Katarsis  
(GALICIA)

Pacama lagun biren arteko jokoen esplorazioa da, izan ere, oheratu baino lehen, logura galarazten dien abenturazko mundua deskubrituko dute. Haien alde aurretiko jarrerari eta bakuntasunari esker, dibertsioa aurkitzen dute euren inguruko gauza guztietan, gauzarik xaloenetan, oso giro erosoan; logelan, hain zuzen ere.

Joko batek beste batera doaz: hasi pilota batetik, eta hegan egiteko hegoak bailiran darabiltzaten burkoetara; eta airean astintzen diren maindireak, biribilkatzen eta desbiribilkatzen den toalla, pizten eta amatatzen den argia, eta elkar musukatzen duten begi itxurako txotxongiloak.

12:30, 18:00 h // 4 € // Ambigú

**ZUZENDARITZA DIRECCIÓN**

Omar Álvarez, Kevin Stewart

**INTERPRETEAK INTÉRPRETES**

Kevin Stewart, Estíbaliz Veiga

**JATORRIZKO MUSIKA MÚSICA ORIGINAL**

Manuel Conde

+ INFO

[www.katarsiseyt.com](http://www.katarsiseyt.com)



Pacama es una exploración de juegos entre dos amigos que antes de dormirse descubren un mundo de aventuras que les distrae del sueño. Su predisposición e ingenuidad hacen que encuentren diversión en lo más sencillo, en todo aquello que les rodea, en el marco de un ambiente tan acogedor como lo es un dormitorio.

Un juego lleva a otro, desde una pelota hasta unas almohadas que hacen de alas para volar, pasando por las sábanas agitándose en el aire, la toalla enrollándose y desenrollándose, la luz apagándose y encendiéndose, y unos pequeños títeres en forma de ojos que se besan.



Lehen aldia, Hautzæontzako V. Arte Eszenikoaren Zikloa

12:30, 18:00 h // 4 € // Ambigú

**EGILEAK AUTORES**

Andrea Buzzetti, Valeria Frabetti

**ZUZENDARITZA DIRECCIÓN**

Valeria Frabetti

**INTERPRETEA INTÉRPRETES**

Andrea Buzzetti

**+ INFO**

[www.testoniragazzi.it](http://www.testoniragazzi.it)



**antzerkia**  
TEATRO

**AZAROAK 18 NOVIEMBRE**

**S P O T**

**La Baracca**  
**(ITALIA)**

Eguzkia naiz horian, itsasoa urdinean eta zerua urdin argian, sua naiz gorrian... eta gorri jartzen naiz hunkitzen naizenean, kale distiratsua naiz, oturuntza naiz! O!... Iluntasuna naiz! Eta ezin nauzu gehiago ikusi! Baina entzun egin nazakezu arnas egiten dudanean... Ez dut hitz egiten, baina nire begiak zabaldu eta itxi ditzaket. Ez daukat oinik, ezta eskurik eta hankarik ere, baina jarrai zaitzaketa ibiltzen zauden bitartean... Spot naiz eta istorioak kontatzen ditut.

Spot eszenatokiko argi bat da, oso argi berezia. Bere argiak dir-dir egiten du, eta zoruan sortzen diren formen eta koloreen bitartez mintzo da.



Soy el sol en el amarillo, el mar en el azul y el cielo en el azul claro, yo soy el fuego en el rojo... y me pongo roja cuando me emociono, soy una calle brillante, ¡Soy un banquete!. ¡Oh... Soy la oscuridad! ¡Y no me puedes ver más! Pero puedes escucharme respirar... Yo no hablo, pero puedo abrir y cerrar mis ojos. No tengo pies, manos ni piernas, pero puedo seguirte mientras caminas... yo soy Spot y cuento historias.

Spot es una luz del escenario muy particular. Su luz brilla y se expresa mediante el dibujo de formas y colores en el suelo.



antzerkia  
TEATRO

AZAROAK 23 NOVIEMBRE

EN LA LUNA

Teatro de La Abadía - Teatre Lliure  
(MADRID - CATALUÑA)

Alfredo Sanzol, giza istorioen ikusle zorrotza, ikus-entzuleek eta kritikak gehien aintzatetsi eta txalotutako egile eta zuzendarietakoa bihurtu da urte gutxian.

Lan berria ilargian gertatzen da, Lurrari begira. Beste planeta batera “erbesteratzearen” ikuspegiak ematen dion arrotzatsunarekin, Sanzolek, 15 atalen bitartez, oroitzen goiztiarrenetatik hasitako bidaia proposatzen du; oroitzenen memoriaren barrurik barruenean bizi dira, eta noizik behin berregertzen dira, nor garen eta nondik gatozen azaltzen duen tximistaren antzean; izan ere, haurtzaro haren oroitzenen Espainiako demokraziaren haurtzaroaren berberak dira.

Umorez, fantasiaz, samurtasunez, garratasunez eta gatz surrealiz betetako istorioak.

Konpainia aparta.

Ikuskizun bikaina, inteligentea, zolia, gutaz hitz egiten duena, dibertitu eta hunkitzen duena.

20:30 h // 15 € // Auditorium

**AUTORETZA ETA ZUZENDARITZA**

**AUTORÍA Y DIRECCIÓN**

Alfredo Sanzol

**INTERPRETEAK INTÉRPRETES**

Juan Codina, Luis Moreno, Palmira Ferrer, Jesús Noguero, Nuria Mencía, Lucía Quintana

**ESZENOGRAFIA ETA JANTZIAK**

**ESCENOGRAFÍA Y VESTUARIO**

Alejandro Andújar

**ARGITAZPENA ILUMINACIÓN**

Pedro Yagüe

**MUSIKA MÚSICA**

Fernando Velázquez

+ INFO

[www.teatroabadia.com](http://www.teatroabadia.com)



GOMENDATUA  
RECOMENDADO



Alfredo Sanzol, observador agudo de las historias humanas, se ha convertido en pocos años en uno de los autores y directores más reconocidos y aplaudidos por el público y la crítica.

Su nueva obra se desarrolla en la Luna, con vistas a la Tierra. Con la extrañeza que le brinda la perspectiva del “destierro” a otro planeta, Sanzol plantea, a través de 15 episodios, un viaje por sus recuerdos más tempranos, aquellos que viven en el fondo de la memoria y que reaparecen cada cierto tiempo como relámpagos que explican quiénes somos y de dónde venimos, recuerdos de esa infancia que es al mismo tiempo la infancia de la democracia en España.

Historias cargadas de humor, fantasía, ternura, acidez e ingenio surreal.

Una brillante compañía.

Un excelente espectáculo, inteligente, sutil, que habla de nosotros, que divierte y emociona.





musika  
MÚSICA

© Oskar Alegria

AZAROAK 24 NOVIEMBRE

RUPER ORDORIKA

Hodeien azpian  
(EUSKADI)

Zuzenekoa, hurbilekoa eta soinu berriarekin, “are zorrotzagoa”. Horrelakoa da Ruper Ordorikaren (Oñati, 1956) hogeigarren diskoa, “Hodeien azpian” izenekoa eta, berriz ere, New Yorken grabatutakoa.

Sortzaile nekaezina eta arretatsua izanik, Ruper Ordorikak “mundua inguratzen duen oihartzuna eraiki” nahi du. Eta kontzertu honetan bere musika naturalaren eta arinaren zati handi bat eskainiko du, naturarekin erlazionatutako hurbileko poesiaz eta metaforaz josita, eta, betiere, folkaren, rockaren, bluesaren eta fusioaren artean.

Literaturara besarkaturik, ametsak, barneko adierazpenak eta mamuak azaleratzen dira... gizakiaren patuaren oroitzapena, kezketatik ihes egin eta erlaxatzeko aukera izan dezagun.

21:00 h // 10 € // Auditorium

#### FITXA ARTISTIKOA FICHA ARTÍSTICA

Ruper Ordorika (ahotsa eta kitarra), Arkaitz Miner (kitarra, mandolina eta bibolina), Lutxo Neira (baxua), Hasier Oleaga (bateria)

#### + INFO

[www.ruperordorika.com](http://www.ruperordorika.com)

ANTOLATZAILEA:



Directo, cercano y con una nueva sonoridad, “más afilada”. Así suena en directo el vigésimo disco de Ruper Ordorika (Oñati, 1956), titulado Hodeien azpian y grabado de nuevo en Nueva York.

Incansable y meticuloso creador, Ruper Ordorika, busca “construir el eco que envuelve el mundo”. Y en este concierto nos ofrece una buena ración de su música natural y fluida, repleta de poesía cercana y metáforas relacionadas con la naturaleza, y siempre a caballo entre la sonoridad del folk, el rock y algo de blues y fusión.

Abrazado a la literatura, afloran los sueños y las expresiones interiores, los fantasmas... el recuerdo del destino humano, para que podamos relajarnos a pesar de todas las inquietudes posibles.





antzerkia  
FAMILIAR

AZAROAK 25 NOVIEMBRE

## ALI BABA ETA 40 LAPURRAK

Borobil Antzerki Taldea  
(NAVARRA)

Alí Baba eta 40 lapurren ipuin tradizionalean oinarrituta, Borobil Teatrok egokitzapen bizi eta soila lortu du, haurren gozamerako.

Argiztapen, musika eta koreografia bikainez lagundurik, hiru aktore protagonistek Ali Babaren istorioa kontatzen dute. Hain zuzen ere, Ali Baba egurketari persiarra da, eta altxor handia aurkitu du haizulo baten barruan. Baina altxor hori 40 lapurrez osaturiko talde batena da, eta ez dute Ali Babaren anaia Kas-simen aberastasun-gosea barkatuko, urrez betetako zakuak eramaten ari dela jakiten dutenean.

Lapurren haserretik ihes egiteko eta, bide batez, bere familia eta lagunak babesteko, Ali Babak abentura itzelak biziko ditu, eta hori ikusi ahal izango da eszenatokian, 50 minutu ahazte-zinez.

18:00 h // 5 € // Auditorium

### ZUZENDARITZA DIRECCIÓN

Anartz Zuazua

### INTERPRETEAK INTÉRPRETES

Anartz Zuazua, Asier Sota, Julen Vega

### TESTUAREN MOLDAKETA

#### ADAPTACIÓN DEL TEXTO

Anartz Zuazua, Asier Sota, Nagore Aranburu

### MUSIKA MÚSICA

Ignacio Pérez Marín

### + INFO

[www.quieroteatro.com](http://www.quieroteatro.com)



GOMENDATUA  
RECOMENDADO



Basado en el tradicional cuento de Alí Babá y los 40 ladrones, Borobil Teatro ha logrado una adaptación ágil y sencilla para el disfrute del público infantil.

Ayudados por una muy acertada iluminación, música y coreografías, los tres actores protagonistas van deshilando la historia de Alí Babá, un pobre leñador persa que descubre un gran tesoro dentro de una cueva. Pero este tesoro pertenece a un grupo de 40 ladrones que no perdonarán la avaricia de Kassim, el hermano de Alí Babá, cuando descubre que se está llevando sus sacos de oro.

Las trepidantes aventuras de Alí Babá por quedar a salvo de la ira de los ladrones y salvar así mismo a su familia y a sus amigos, galoparán por el escenario durante 50 inolvidables minutos.



21:00 h // 20 € // Auditorium

**DENBOLDARIKO BONOA  
BONO TEMPORADA**

60 € (ezin da beste deskontu batzuetara gehitu / no acumulable a otros descuentos)

**KULTUR LEIOAREN LAGUNENTZAKO BONOA  
BONO PARA AMIGOS/AS KULTUR LEIOA**

50 €

**MUSIKARIAK MÚSICOS**

Lori Watson (ahotsa eta biolina), Ali Hutton (gitarra eta koruak), John Somerville (akordeoia)

**+ INFO**

[www.loriwatson.co.uk](http://www.loriwatson.co.uk)



**musika**  
...CON ALMA

**AZAROAK 30 NOVIEMBRE**

**LORI WATSON  
& THE RULE OF THREE  
(ESCOCIA)**

Lori Watson and Rule of Three, gaur-gaurkoz, talde handia da. Beraien bilakaerak hitzik gabe uzten gaitu, beraien dotorezia erabatekoa da, ahotsa erabat menperatzen dute eta hirukotea ezin hobeto uztartzen da, inolako arrakalarik gabe. Hala, egungo musika zeltari dagokionez, etorkizun oparoenetakoa duen taldeetako baten aurrean gaude. Eskoziako tradiziorik onenetik edaten duen taldea, gaur egungo eta etorkizunera begirako elixirrik onena eraikitzeko asmoz.

